



GARAPEN IRAUNKORRAREN GAINEKO GALDEKETA – Uztaritze, 2015eko maiatza – BIZTANLEAK EMAITZEN AURKEZPENA

Garapen iraunkorra giza garapenerako ezinbestekoa da, alde **ekonomikoa** (ekonomiaren eraginkortasuna hobetzea), nola **soziala** (gizarte zuzentasuna hobetzea eta bazterkeriaren kontra egitea) eta **ingurumenarena** (ingurumena osorik atxikitzea) kontuan hartzen dituenak.

Agenda 21 herriaren garapen iraunkorraren aldeko engaiamendu bat da. XXI. menderako ekintzen programa bat da eta

- Tokiko kolektibitateen ekintza jakinen gainean eraikia da
- Lurraldeko biztanle eta eragileekin ekarlanean egiten da
- Alor orotan aritzen da: osasuna, etxebizitzak, bidaiak, hondakinak, naturaguneak, ekonomia, elkartasuna, kirola eta kultura

Hastapenean, lurraldearen egoera aztertzen da eta biztanleek honako gai hauetaz duten iritzia edo bizipena ezagutzen:

- Pertsona ororen betegintzarrea
- Gizarte kohesioa eta ororen arteko elkartasuna
- Klima aldaketaren aurkako borroka eta energiaren erronka
- Bioaniztasuna, ingurune andekorrek eta baliabideak
- Kontsumitze eta ekoizte arduratsuak

Horrez gain, **jendeen parte hartzeari zabalduriko desmartxa** da ere, hautetsiak, herriko langileak, biztanleak eta lurraldean ari diren guztiak egiteko horretara lotu nahi dituenak.

Parte hartze eta elkar aditze xede horretarako banatu genuen galdeketa inprimakia, biztanleen iritzia eta eguneroko ohiturak ezagutu nahi baikenituen. Garapen iraunkorrari dagokionean biztanleek dituzten esperantzak eta nahiak ezagutu nahi genituen ere.

Guztira, **196** erantzun ukan ditugu, hau da, banatu genituen galdeketen % 6,5 heldu zaigu. Halako emaitza eskasa dela pentsa badezakezue ere, ez da hala, on samar baizik, halako galdeketen arrapostu maila ez baita, normalki, % 5etik gorakoa izaten.


Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen parte hartzeagatik; herritarren parte hartzearekin kontaktzen duen desmartxa honetara lotzen segituko duzuela espero dugu.

EMAITZEN AZTERKETA

ERANTZUN DUTENEN PROFILA



Galdeketari erantzun dutenen artean (erantzunen % 12a euskaraz) gizon baino emazte gehiago bada, hau da, INSEEren 2011ko datuen pareko egoera da: 30 urte eta goragoko biztanleak: emazteak % 54 / gizonak % 46. Gazte gutxik erantzun du (% 4 besterik ez 29 urtez pekoen artean). Gazteen parte hartzeari arretaz begiratu behar diogu, hemendik goiti.

Vous êtes / Nor zira



Vous avez / Zure adina


- moins de 18 ans / 18 urte baino guttiago
- Entre 18 et 29 ans / 18 - 29 urte artean
- Entre 30 et 44 ans / 30 - 44 urte artean
- Entre 45 et 59 ans / 45 - 59 urte artean
- Entre 60 et 74 ans / 60 - 74 urte artean
- 74 ans et plus / 74 eta +



- Erantzun duten 81 %heien etxearen jabe dira
- 21 % bizi dira etxe kolektiboetan
- 79 % bizi dira etxe bakarkakoan


Oro har, kategoria sozioprosesional guztiak ageri dira. Erretretadunak besteak baino gehiago dira, biztanlerian duten parteari sozinez gero (INSEEren datuak).

Votre catégories socioprofessionnelles / Zure sail sozioprofesionala



Erantzun dutenen azterketa auzoka eginez gero, auzo orotan antzeko arrapostu maila izan da, %6 inguru

Répartition géographique des répondants / Erantzun dutenen errepartizio geografikoa



Galdeketari erantzun diotenek uztariztarren batezbesteko irudia osatzen dute, oro har, gazte gutxi ageri bada ere. Tentu handiz ibili behar da, halere, emaitzak biztanleria osoari estrapolatzen hasi gabe.

UZTARITZE ETA ZU


Galdeketaren bigarren zatiaren xedea uztariztarrek zenbait alorretan zuten asebetetze maila ezagutzea zen.

Uztariztar gehienek pentsatzen dute garraio kolektiboak eta bidaiatze molde arinak eskasak direla edo hobetu behar direla. Berdin pentsatzen dute ekonomiaren indarrak, saltegiak, turismoak, hiri antolaketak eta ingurumenak.

Arkitektura eta historia ondareari buruz, iritziak banaturik dira.

Azkenik, asebetetze maila handia da kultura eta kirol eskaintzei dagokienean.

Bestalde, erantzunen %45ak ez du gizartekintzari buruzko iritzirik, herriak gizarte alorrean egiten dutena ezagutu ezean, nonbait.



Galdeketak biztanleei proposatzen zien beren auzoetako hiru alde on eta hobetzekoak diren betse hiru alde aipa zituzten. Erantzun «libre» horiek uztariztarren ikuspuntua –goiko taulak erakusten du- osatzen laguntzen dute. Hona hemen bildu ditugun erantzunen laburpen bat. Ohar horiek, laster sortuko diren herritar lantaldeek aztertuko dituzte xehekiago.

- **Biztanleek aipatu alde onak**

Auzo orotan, biztanleek baretasuna dute goratzen, lasaitasuna, jendarte ona, paisaiak, natura ingurunea, berdeguneak, bai eta bideetatik eta BABtik hurbil izatea ere.

Oro har, gizarte bizitza eta elkarteak izatea ere gauza onak zaizkie biztanleei.

Bizitza kalitate ona eta ingurune ona aipatzen dute biztanleek, herriaren antolaketa atsegina ere aipatzen dute, banakako bizitegiekin, etxetxoekin.

Hiri barne-Xopoloko biztanleek eta Hiribehere-Sokorrondokoek hiri erdigunearen, saltegien eta zerbitzuen hurbiltasuna dute aipatzen (posta, herriko etxea, eskolak, jatetxeak, autobus geltokiak).

- **Biztanleek aipatu eskasiak**



Biztanleek gehienbat, bide segurtasuna, bideen egoera, oinezkoen eta bizikleten ibilbide eskasak, garraio kolektiboen eskaintza aipatu dituzte, auzo orotan.

Bestalde, biztanleek gizarte guneak, topatzeko eta jendeartean izateko lekuak sor eta antola daitezen nahi lukete, ororen etxe edo auzo etxe edo horrelako zerbait, batez ere gazteentzat. Auzoei bizia eta bizkortasuna ematea beharrezkoa ikusten dute ere.

Honako gai hauetan eman beharko ditugu erantzun zehatzak: hiribarneko saltegiak, oinez edo bizikletaz mugitzea, naturaguneak. Hartu ditugun informazio eta adierazi behar horiek gure gidalerroa izanen dira, agenda 21 berrirako ekintzen lehentasuna murriztekoan.

GARAPEN IRAUNKORRA ETA ZU

Galdekatu biztanleak, oro har, garapen iraunkorraz axolatzen dira (% 87). Erantzun duten gehien-gehienek (% 67) garapen iraunkorra pentsamolde eta jokamolde berriak ekartzen dituztela penstatzen dute. Garapen iraunkor kontzeptua eta ingurumenari lotu kezkek ezagutzen dituzte erantzun dutenek, % 14ak baizik ez baitu uste garapen iraunkorra, ideia interesgarria izanik ere, lausoa dela.




Uztaritzeko biztanle gehienak bizitza kalitateari atxikiak dira (% 65). Gainerateko kezkek (kostua, alde praktikoa, alde ekologikoa, sozialki arduratsu izatea) berdintsu eragiten dute biztanleen eguneroko ohituretan.




Erantzun duten gehien-gehienek zenbait jokamolde ekoherritar egiten ohi dituzte: hondakinen sailkatzea (% 96), ura ez xahutzea (% 82), ... Beste jokamolde batzuk, gehienek egiten badituzte ere, beste asko egiteko prest lirateke, hala nola euri ura biltzea (% 28), argindar gutxiago xahutzea (% 15) edo konposta egitea (% 14). Ekintzen plana prestatzerakoan, puntu hauetan arreta berezia ezarri beharko da (komunikazioa, informazioa, aterabide teknikoak,...).

Quels gestes pour l'environnement faites-vous / Zein dira ingurumenaren alde egiten dituzun keinuak?




Les moyens de déplacement / Garraiobideak




Gar
bilit

Da oinez


Galdekatuek autoa utziko lukete, baldin eta, alde batetik, garraio kolektiboen eskaintza emendatuko balitz (% 59a), eta, beste aldetik, oinezkoentzako eta bizikletentzako antolamendu hobea balitz (% 40a). Gainerako aukerak gutti kontuan hartuak dira.



Kontsumo alorrean, erantzun duten gehienek saltegi handietan erosten dute (% 63 erregulariki eta % 8 noiztenka). Hurbileko saltegiak ere baliatzen dituzte (% 30 erregulariki eta % 27 noiztenka). Merkatura, erantzun emaleen herena joan ohi da, erregulariki edo noiztenka. Gainera, erantzun dutenen herenak zuzenean ekoizleari erosten dio.



Uztariztarrak herritar parte hartzaileak dira. Izan ere, erantzun dutenen artean, % 5 besterik ez bada beti edo ia beti herri kontseilura joaten da, % 9 batzuetan joaten da eta % 15ek joateko asmoa dute. Aldiz, %94k irakurtzen du herriko aldizkaria eta % 66 herriaren proiektuen berri jakiten ohi dute. Berrikitan plantan ezarri diren auzo batzordeei dagokienean, % 30ak parte hartzen du eta % 36ek parte hartzeko asmoa dute.




Horrez gain, elkarteetan parte handia hartzen dute; erantzun dutenen % 72 elkarte bateko kide dira, haietan % 44 Uztaritzen bertan.


Kirola, artea, kultura, soziala eta elkartasuna dira erantzun dutenen arteko kide gehien dituzten elkarten alor eremu nagusiak. Ingurumenaren aldeko elkarteek leku handia dute «beste» % 10aren artean.

Sektore hori Agenda 21 prestatu eta plantan ematen parte hartzen dutenen osagai garrantzitsua da.

Faites-vous partie d'une association / Elkarte batean parte hartzen duzu?



Types d'association / Zer motatako elkartea




GARAPEN IRAUNKORRARI DAGOKIONEAN IGURIKATZEN DUZUENA

Galdeketaren azken zatiaren xedea garapen iraunkorrerako lan ardatz nagusiak zehaztea zen.

- **Ingurumenaren inguruko lehentasunezko alorrak**

Erantzun dutenek ingurumenari loturik azaldu dituzten lehentasunak naturaguneen babestea eta balioa ematea, (% 79), eta ibilmolde arinak errextea (% 62) dira. Horrez gain, erantzun dutenen % 54arentzat hiritartzeak ez du epazioa kontsumitu behar.


Champs prioritaires en matière d'environnement Ingurumenaren arloan lehentasunez landu behar diren arloak



- Ekonomiaren inguruko lehentasunezko alorrak**

Galdeturiko %80entzat, tokiko elikadura ekoizpena lagundu behar da eta hurbileko saltegiak indartu (% 68). Gainerako alorretan, erantzun dutenen herenarentzat lehentasunezko gaiak dira, ekonomia soziala eta elkartasunezkoa, enpresa berritzaileak gurean hartzea, ekoeraikuntza eta energia berriztagarriak garatzea.

Champs prioritaires en matière d'économie / Ekonomiaren arlean lehentasunez landu behar diren arloak



Horretarako, herriak tokiko produktuak saltzeko guneak bultzatu ditzake, diren saltegien gaineko informazioa zabaldu...

- Elkartasunaren eta gizarte loturaren inguruko lehentasunezko alorrak**

Alor hauek guztiak dira lehentasunezkoak, erantzun dutenen % 40arentzat: gizarte laguntzak, gazte gunearen zerbitzuak, adinekoentzako laguntza, elkarte bizitza, leku publikoen hurbilerrextasuna eta kalitatea. Erantzun dutenen laurdenak bestak aipatzen ditu sail honetan.

Champs prioritaires en matière de solidarité et de lien social Elkartasunaren eta gizarte loturaren arloan lehentasunez landu behar diren arloak



LABURPEN OROKORRA

Garapen iraunkorrek pentsamolde eta jokamolde berriak ekartzen dituela iruditzen zaie erantzun dutenei, eta horretarako interesa adierazi dute. Horrez gain, biztanleak beren inguruneari biziki atxikiak dira, beren auzoetan den lasaitasuna eta jendearte ona gustuko dituzte, bai eta herriak inguruan duen natura ere (oihana, Errobi ertzak) eta atxiki nahi dituzte. Elkarte dinamika bizia izateak kultura eta kirol eskaintza ona eskaintzen du eta hori ongi ikusten dute biztanleek.

Uztariztarrek ingurumenaren kezka dute eta jokamolde ekoherritar zenbait dituzte erregulariki, hala nola hondakinen sailkatzea (arrapostuen % 96), ura (% 82) eta argindarra (% 65) ez xahutzea. Garraio kolektiboen eskaintza hobea balitz, oinezkoentzako eta bizikletentzako antolamenduak hobekak balira, autoa gehiagotan utziko lukete garajeen.

Uztariztarrek segitzen dute herriak dituen proiektuen nondik norakoak, batez ere herriko aldizkaria irakurriz (% 82). Batzuk auzo elkarteetan parte hartzen ari dira jadanik eta asko dira hala egiten hasteko asmoa adierazi dutenak (% 36).

Garapen iraunkorraren inguruan igurikatzen dutenaz erantzuten dutenaren arabera, galdeketan parte hartu dutenek interes handia dute garapen iraunkorraren funtsezko gaietan.

- Naturaguneak babestea eta balioa ematea (% 79), ibilmolde arinak errextea (% 62) eta leku gutxiago hartuko duen hirigintza (% 54), ingurumenari dagokionean
- Tokiko elikadura ekoizpena garatzea (% 80) eta saltegi hurbilak indartzea (% 68), ekonomiari dagokionean
- Elkartasunari eta gizarte loturari dagokienean, berriz, biztanleak adi dira gizartean gerta daitezkeen zailtasunei, gazteen eta adinekoen alde egiten denari, elkarte bizitzari eta leku publikoen hurbilerrextasunari eta kalitateari.

Azkenik, 48 pertsona agertu dira Agenda 21 desmartxan parte hartzeko gogoz.

GARAPEN IRAUNKORRAREN ALORREAN IGURIKATZEN DENA



PERSPEKTIBAK

Uztaritzeko herriak tokiko biztanleak eta eragileak Agenda 21 proiektura bete-betean lot daitezen nahi du, Agenda 21 osatzeko hiru faseetan herritarren benetako parte hartzea izan dadin

- Diagnostiko partekatuan
- Programaren prestaketan
- Ekintzen programa gauzatzean, haren jarraipena egitean eta engaiatu ekintzen ebaluazioan

Izan ere, biztanleek ikusten dituzten arazoak azaldu eta gogoetatzeko ideiak proposatzen dituzte.

Galdeketa hau Agenda 21 desmartxaren barnean egin diagnostikoaren parte da. Gaikako foro eta lantaldeak sortzea Agenda 21 osatzeko prozesu parte hartzailearen jarraipena da. Hartara, biztanleei ekintza iraunkorren alorrean dituzten lehentasunak azal ditzaten proposatuko diegu.

